

KOMUNIKAZIO KANALAK

Haiserako pausoa, ziurtagiria merkatura zabaltzeko, sektore publikoarekin elkartuko ginateke; honen funtzionamendua eta helburua elarazteko.

Ondoren, behin, sektore publikoak gure produktua onartzen duenean, bezeroek honen garrantzia eta erabilkortasunaz jabetzeko, sare sozialak erabiliko ditugu. Enpresa erabiltzaileek, ziurtagiria erabiltzean, gure enpresaren bozeramaile bihurtuko dira bezero potentzialak biderkatuz.

Esaterako, Instagram eta Twitterren kontu bat izango dugu, bertan igoko ditugun datu, informazio eta bideoek gure produktuari ikuspena ematea lortuko dute eta aldi berean, bezeroak honek duen garrantziaz jabetuko dira. Gainera, sare sozialetan publizitate gisa jarriko ditugu guk egindako bideo eta iragarkiak. Modu honen, bezero gehiagoren eskuetara heltzea lortuko dugu.

BANAKETA KANALAK

Enpresen feria eta erakusteketetan ere egongo gara, adibidez: Digital Business World Congress de IFEMA Madrilen, IT Expo de Fira Bartzelonan.

